

2018ko urriaren 16ko Herriko kontseiluko bilkura

DONAMARTIRIko herriko kontseilua, ohi bezala deitua izanik, bildu da bi mila hemetzortziko urriaren 16an, legeak manatzen duen kopuruan, bere usaiako lekuan, LARRABURU Antton bere Auzapezaren lehendakaritzapean.

Kargudunak : 11

Hor ziren : 11 **Ahalordeak :**

Bali diren bozak : **Alde :** **Kontra :** 0

Deialdiaren eguna : 2018/10/09 **Afixatze eguna :** 2018/10/23

Hor ziren : LARRABURU Antton, POCHELU Bernadette, CHABAGNO Inès, MIN ONDO Mirentxu, HARISMENDY Emmanuelle, POCHELU Didier, ARMENDARIZ Alain, BORDARRAMPE Xalbat, MIRANDE Mathias, LADEUIX Jean-Pierre, APHECETCHE Alain.

Ez ziren hor : APHECETCHE Alain

Bilkurako idazkarria : HARISMENDY Emmanuelle élue à l'unanimité

Linky kontagailu « komunikatzaileak »

Auzapezak, herriko kontseilua bildu nahi izan du, Linky kontagailu « komunikatzaile »aren gaia aipatzeko. Alabaina, gutun anitz pausatua izan dira Herriko etxean, batzu herriko kontseiluari erabaki bat har-arazteko, edo auzapezari bere polizia eskumenaren erabilarazteko.

Lehenik, auzapezak oroitarazi du, berak, are gutiago Kontseiluak, ez zutela Linky kontagailu « komunikatzaile » pausatzearen kontra aritzeko eskumenik. Alabaina, energiari dagokion eskumena, Pirinio Atlantikoetako departamendu sindikatuari eskualdatua izan zitzaio, eta honen ondorioz hau da kontagailuen jabea, eta ez herriko etxea.

Auzapezak Pirinio-Atlantikoetako herri baten adibidea hartu du, zeinak deliberatu baitzuen Linky kontagailu « komunikatzaileak » debekatzea bere lurraldean.

Suprefetura manatu zion herriari, delako erabakia ken zezan, arrazoi hauen gatik :

- SDEPAren alde transferitua izan den « energia » eskumenak, erakustera ematen du, Linky kontagailu “komunikatzaileen” pausatzeako debekua ez dela Herriko etxe baten eskumenetan sartzen, herriko etxea ez baita dauden kontagailuen jabe.
- SDEPAk delako kontagailuen pausatzea onartu du,
- CNILaren (informatika eta libertate batzorde nazionala) jarrera, zeinak sarearen kudeatzaileari onartzen baitio eguneroko kontsumitze datuak biltzea. Haatik, kontsumitze datu xeheen biltzea (orenkako edo oren erdikako biltzea) eta datu hauek aktore batzuei helaraztea (elektrika hornitzaileak edo beste komertzio aktoreak) ez da egiten ahalko erabiltzailearen baimen argi eta garbia ukan gabe.

Auzapezak oroitarazi du, bere polizia eskumena erabil zaitekeela, segurtasun, garbitasun eta lasaitasun publiko gai hirukoteari lotua balitz baizik eta, ondorioz, deusek ez du erakustera ematen Linky kontagailu « komunikatzaileen » pausatzeak hiru elementu horietatik bat hunkitzen duenik.

Kontseiluko bilkura horren kariatara, ENEDIS enpresako bi ordezkari gomituak izan dira. Hauek, herriko kontseiluko eta bilkuran zeuden herritarren galderei ihardetsi dute. ENEDIS enpresako ordezkariak Linky kontagailu “komunikatzailearen” abantailak azpimarratu dituzte, azalduz baizik eta honi esker erabiltzaileak beren kontsumoa hobeki menperatzeko gai izanen direla.

Kontagailu horrek hedatzen dituen “uhainei » dagokienez, ordezkariak oroitarazi dute Frekuentzien agentziak egin duen kanpainaren ondorioa : honen arabera, neurtuak izan diren Linky kontagailu “komunikatzaileak” publikoari hedatzen dioten uhain elektromagnetikoak, Europear eta Frantses mailako garbitasun arauak publikoaren esposizio alorrean finkatu dituzten mugak baino apalagoak direla frogatzen dute. Horrela, Linky kontagailu “komunikatzaile” batek igortzen duen uhain elektromagnetikoa, kozinataula batek hedatzen duenarena baino ahulagoa omen da.

hHTP

Euskal Hirigune Elkargoak herriarteko Hirigintza Tokiko Plan baten onartzeko xedea luke datorren urterako. Auzapezak gai hori aipatu nahi izan du eta batez ere, lantzen ari den delako planak aurreikusten duen hirigintza arauen antolakuntza, eta bereziki eraikigarriak diren lekuentzat. Kontseiluaren gehiengo nasaia ez da, onartuak izateko pentsatuak diren arauen alde agertu

Le Maire, Auzapeza,
Antton LARRABURU